

## PRENTSA OHARRA

### Patologia neuromuskuluesketikoak dituzten pazienteen bizitza hobetzeko eskumuturreko adimenduna

- *Tekniker kontsumo txikiko gailu bat garatzen ari da, bizi-zeinu nagusiak goimailako teknologiarekin eta Bluetooth konexioarekin monitorizatzen dituena.*
- *Soluzioak gailu medikoak diseinatzeko eta garatzeko prozedurei jarraitzen die, eta ingurune kontrolatu batetik, esaterako ospitale batetik kanpo dauden pazienteei zuzenduta dago.*
- *Gailua balidazio-fasean dago eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroaren (CDTI) bidez finantzaturako IBERUS proiektuaren esparruan diseinatu da*

[Eibar, 2023ko otsailaren 28a] – Biztanleria zahartzeak eta, horren ondoriozko mendekotasuntasak handitzeak, etxean dauden pazienteen osasuna zaindu eta monitorizatzeko eskakizunarekin batera, egoera horiei aurre egiteko aukera emango duten sistema teknologiko berriak izateko premia planteatzen du.

**Tekniker** zentro teknologikoak xede horrekin hartzen du parte Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroaren (CDTI) bidez finantzaturako **IBERUS Cervera** Bikaintasun Sarea proiektuan.

Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-sareko lankidetzaz-estrategia bat abian jartzea da proiektu honen helburua, sistema neuromuskuloesketikoaren patologien eta alterazioen diagnostiko, pronostiko, tratamendu eta laguntzarako Smart Health Data (datu adimendunak osasunaren arloan) eraginkortasunez kudeatzeko.

**Gailu mediko adimenduna, konektatua eta elkarreragingarria**

Proiektu horren esparruan, kostu eta kontsumo txikiko *soinean eramateko* gailu mediko adimentsu, konektatu eta elkarreragingarri bat optimizatzeaz eta osorik garatzeaz arduratzen da Tekniker.

Soluzioa, eskumuturreko formako bizi-zeinuak monitorizatzeko plataforma bat da, Bluetooth konexio bati esker erabiltzailearen osasunari buruzko datu garrantzitsuak biltzeko gai dena. Datu horien artean daude elektrokardiografia, pulsioximetria, gorputzeko tenperatura eta jarduera fisikoa.

Horretarako, zentro teknologikoak goi-mailako teknologiak txertatu ditu gailuan, hala nola adimen artifiziala eta komunikazio-protokolo ziberseguruak.

Hala, espezialista sanitarioek informazioa izan dezakete ingurune kontrolatu batetik kanpo dauden pazienteen gaixotasunak edo istripuak prebenitzeko eta horien berri emateko, esaterako, ospitaletik kanpo dauden pazienteenak.

“Eskumuturrekoa oso erraz erabiltzeko moduan diseinatuta dago. Neurketa-sistema guztiz automatizaturik da, erabiltzailearekin interakzio handirik behar ez duena”, azaldu du Nerea Arandia Teknikerreko Elektronika eta Komunikazio Unitateko arduradunak.

Halaber, prototipoaren garapena oraindik balidazio-fasean dago, eta gailu medikoak diseinatzeko eta garatzeko prozedurei jarraituz egin da. Horien artean, ISO 13485 ziurtagiria nabarmendu behar da, Teknikerreko duena.

## **Lehen proba pilotua**

2022ko abenduan, ikerketa-taldeak lehen proba pilotua egin zuen ingurune erreal batean, hain zuzen ere Bizkaiko adinekoen egoitza batean. "Lortutako emaitzak oso onak izan dira", adierazi du Teknikerreko ikertzaileak.

Lehenengo proban lortutako datuetan oinarrituta, taldeak gailuaren funtzionamendua optimizatzen jarraituko du, emaitza hobetzeko helburuarekin.

Iberus ekimena (CER-20211003) ikerketa teknologikoko lau zentrotan egituratua dago, eta guzti-guztiek daukate espezializazio- eta bikaintasun-maila altua osasunaren sektorean. Honako hauek dira zentroak: Valentziako Biomekanika Institutua (IBV), Informazioaren eta

Komunikazioaren Zentro Teknologiko fundazioa (CTIC), Gaztela eta Leongo Institutu Teknologikoa (ITCL) eta Tekniker.

## Teknikerri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen eta materialen ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago izateko:

**GUK** ▶ Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067